



Aritz Agirre (Argazkia, Manuel Castells)

Aritz Agirre Euskadi Irratiko albistegien zuzendaria izan genuen 2006ko maiatzaren 4an gurekin Euskarazko Kazetaritzaren IV Jardunaldiei hasiera emateko. Aritz Agirre Euskadi Irratian hasi zen lanean, Gasteizen, bereziki bertako Legebiltzarreko politikagintza jarraitzen. Gero lau urte eman zituen Madrilen Euskadi Irratiko korrespontsal. Horren haritik, korrespontsalaren lana bere ustez zertan datzan azaldu zigun oso adibide eta anekdota argigarriekin. Irratian lana modu eraginkorrean aritzeko giltzarriak gurekin konpartitzeko eta jakinarazteko ez zuen lotsarik izan eta entzuleok eskertu genion, jakina. Madrilen oso gertaera garrantzitsuak bizi izan zituen: PPrearen agintaldia, Prestige-aren krisia, gerraren aurkako manifestazio erraldoiak, Martxoaren 11ko atentatuak... Horietan guztietan komunikabideen munduan zer “egosten” zen kontatu zigun... eta horregatik suertatu zen horren interesgarria.



Argazkia, Manuel Castells

Ekonomiako ikasle batek, adibidez, arrazoi hauetan oinarritu zuen hitzaldiaren interesa: “Alde batetik, kontatu zizkigun gauzak oso harrigarriak ziren denok jakindako gauzak zirelako baina atzealdean zegoena ezezaguna zen kazetarien mundutik kanpo dagoenarentzat. Bestetik, interesgarrien iruditu zitzaidana zera da, berak kazetari on batean bilatzen duena, azken finean, pertsona guztiok izan beharko genituen aptitudeak direla. Lehendabizi, sozialak izan behar gara pertsonak, “kontaktuak” izan behar baititugu bizitza honetan. Berdin zait kontaktu edo lagun izena ematea. Bigarrenik, gero eta garrantzia gehien ematen zaio ondo mugitzeari, eskuratu ahal ditugun errekurtsoak ahalik eta hoberen erabiltzeari. Noski, bizitzan zehar oso ezaugarri onuragarria da ahalik eta etekin gehien lortzea daukagunarekin. Eta azkenik teknika izatea, ondo hezia egotearekin parekatu ahal dugula. Nola ez, hezkuntza bigarrena lortzeko balio du eta baita gure burua garatzeko”.